

32 PIRATAK ETA PRESOAK

(Hizkuntz helburua: Aginduzkoa landu)

MATERIALA : Zirkuito erakargarriak prestatu.

AZALPENA : Piratek itsasontzi bati erasotzen diote. Marinelak preso hartu eta, beren gordeleku sekretura eramaten dituzte, baina begiak itxita. Piratek bidea azaldu behar diete presoei :

"Aurrean enbor erori bat dago, salto bat egin ezazu, eup !""Kasu! Zilo bat bada hor ! Urrats handi bat egin ezazu!""Har ezazu makila hau (makila bat eskaintzen zaio) zure aurrean suge bat bada. Jo ezazu!""Orain ibaia zeharkatu behar duzu !""Ia, iritsi gara gordeleku sekretura, geldi hor !""Burua apal ezazu atetik sartzeko.""Etzan zaite zure ohean. Lotu behar zaitugu."" Tori, edan suge-salda hau, oso gozoa da."